



Arartekoaren 2015R-660-15 Ebazpena, 2015eko irailaren 4koa. Horren bidez, Abadiñoko Udalari espaloietako terrazak jartzerakoan oinezkoentzako ibilbide irisgarriak zehazteko eska daitezkeen baldintzen inguruan gomendatzen zaio.

Aurrekariak

1. *Pertsona batek* erakunde honetan kexa bat aurkeztu zuen, haren ustez Abadiñoko Udalak ez zuelako betearazten terrazei buruzko udal ordenantza. Horrez gain, esan zigun ez zegoela ados instalazio mota horiekin okupatutako espaloietan oinezkoentzako irisgarritasuna bermatzeko aplikatutako irizpideekin.

Pertsona honek azaldu zigun 2014ko abenduaren 5ean udalari eskatu ziola, arrazoitutako idatzi baten bidez, erabilera publikoko guneeetan terrazak eta barrak jartzea arautzen duen udal ordenantza bete zedin exijitzeko (2014ko apirilaren 28ko BAO), aurrerantzean ordenantza.

Kexagilearen iritziz, ordenantza, oro har, ez da ari betetzen. Zehazki, salaketak honako ez-betetzeak zituen oinarri:

- Eraikinaren fatxadaren ondoan bi metroko pasabidea uzteko beharra, oinezkoak pasatu ahal izateko.
 - Lurrean terrazen azalera mugatzen duten markak.
 - Instalazioak okupatu beharreko zonaldea markatzen duen plano bat establezimenduaren leku ikusgarri batean egotea, azalera eta baimendutako mahai kopurua mugatuz.
2. Kexa ikusirik, Abadiñoko Udalari informazioa eskatu genion eta terrazak jartzerakoan oinezkoentzako ibilbide irisgarriak zehazteko eska daitezkeen baldintzei lotutako ordenantzaren interpretazioari buruzko lehen balorazioa helarazi genion, baita hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren aplikazioa ere.
 3. Abadiñoko Udalak gure informazio-eskaerari erantzuna eman zion, oinezkoen ibilbideen irisgarritasuna bermatzeko aipatu dugun dekretuaren interpretazioari buruz udal idazkariak egindako txostena aurkeztuz. Kontu hori sakonago jorratuko dugu gogoeten atalean. Halaber txostenak ordenantza betearazteko betebeharra aipatzen du, lurzorua mugatzeari eta plano bat jartzeari dagokienez –azalera mugatuz eta baimendutako mahai kopurua-.

Horrez gain, eremuan baimentzen diren terrazen instalazioak bete behar dituen baldintzei buruz arkitekto aholkulariak egindako txostenak aurkeztu ditu, kasuan kasuko plano zehatzak erantsita.

Azkenik, 2015eko abuztuaren 3an, alkatearen jakinarazpen bat jaso dugu. Horren bidez udal erregulazioa bete da, alegia, lurzorua mugatu da eta establezimenduen





bistako leku batean okupatu beharreko zona eta baimendutako mahai eta aulki kopurua barne hartzen dituen planoak jarri da.

Gogoetak

1. Abadiñoko Udalak interesdunaren kexari erantzuna eman dio, lurzoruan terrazak okupatzen duten eremu publikoaren azalera markak eginez mugatzeari dagokionez eta establezimenduko bistako leku batean okupatu beharreko eremua eta baimendutako mahai eta aulki kopurua barne hartuko dituen planoak jartzeari dagokienez. Hortaz, uste dugu kexa ebatzita dagoela bi kontu horiei dagokienez.

Beraz, gomendio horren xedea araudiaren betetzearen azterketari lotzen zaio, instalazio mota horiek okupatutako eremu publikoetan pertsonen irisgarritasuna bermatzeko.

2. Oinezkoen irisgarritasuna bermatzeko terrazak jartzeko moduari buruz egin genuen informazio-eskaeran, udalari adierazi genion ordenantzak 68/2000 Dekretuaren babesa, besteak beste, onartzen badu ere, gure iritziz, udal erregulazioak ez duela behar bezala aplikatu legezko erregulazioa.

Horregatik, udalari adierazi genion aipatutako dekretuak, udal araudiari egokitu behar zaiona nahitaez, ez duela eraikinen aurrealdean errespetatu beharreko oinezkoen ibilbidea bermatzeko espaloiko 2 metrotako espazioaren gaineko zalantzarik onartzen, eta espazio publikoa terrazekin edo antzeko beste instalazioekin okupatzeak baldintza tekniko hau bermatuz onartu behar direla beti.

Argumentazio horri erantzunez udalak dio eztabaida daitekeen kontua dela eta honako interpretazio hau egin du:

“El art. 4 del Anexo II citado define primeramente el Mobiliario Urbano en su apartado 4.1, y de su lectura todos comprendemos que se está refiriendo a aquellos elementos que la propia Administración coloca en los espacios públicos, como son las papeleras, marquesinas, fuentes, etc, y establece una norma general de que cualquier elemento de mobiliario urbano no debe interferir la accesibilidad, y en su apartado 5 determina que ese mobiliario urbano nunca se colocará junto a la fachada. En cambio para aquellos elementos que no son mobiliario urbano en sentido estricto, pero que sí se instalan en espacios públicos, el Decreto les dedica el apartado 7, y señala que las terrazas de hostelería no interferirán nunca el itinerario peatonal y deberán ser diseñadas teniendo en cuenta su accesibilidad.

Por tanto, el Decreto distingue con meridiana claridad, el mobiliario urbano de las terrazas de hostelería, y les da un trato diferente motivado por la permanencia fija o duradera en el primer caso y su permanencia eventual en caso de las terrazas, puestos de exposición, etc, siempre aplicando a ambos supuestos el principio irrenunciable de



no interferir la accesibilidad. Por tanto el Decreto viene a distinguir a las terrazas del mobiliario urbano, y el apartado 4.5 es aplicable al mobiliario urbano, y el apartado 7 a las terrazas.

Si el legislador los distingue, el aplicador del derecho no puede obviarlo. Es por ello, que la Ordenanza municipal regula de una forma dual la ubicación de las terrazas, y ello se hizo teniendo en cuenta por un lado lo que el Decreto señala en su apartado 7, y por otro teniendo en cuenta la situación de los espacios públicos de este municipio.

Pero en todo caso, sin perjuicio de las interpretaciones que pudieran realizarse, el principio básico que debe aplicarse teniendo en cuenta tanto lo que la propia Ley 20/1997, de Promoción de la Accesibilidad en su artículo 1 prescribe, como la norma general que fija el artículo 4.2.1.1, y el 4.2.7, es que cualquier elemento, sea mobiliario urbano o sea una terraza de hostelería, NO INTERFIERA LA ACCESIBILIDAD.

La normativa legal lo que pretende es que no se instalen elementos en las vías y espacios públicos que dificulten la accesibilidad de los ciudadanos..."

Laburbilduz, txostenak amaitzeko dio ez dela ezein unetan egiaztatu fatxadaren ondoan mahaiak egoteak pertsonen irisgarritasuna galarazi dienik eta udal baimena ordenantzan babesten dela (gorago aipatutako 4.5 artikulua), eta, hala, txosten teknikoak egiaztatzen duenari jarraiki bi metroko igarobidea betez.

3. 68/2000 Dekretuaren II. Eranskineko 4.1 artikulua hiri-altzarien definizio hau ematen du:

"Hiri-altzaritzat, kanpoko espazioetan urbanizazio-elementuei gainjarrita edo erantsita (aldatzean edo le- kualdatzean funtsezko aldakuntzarik ez ekartzeko mo- duan) ipini beharreko objektuak hartuko dira: semafo- roak, seinaleak, informazio-panelak, kartelak, telefono- kabinak, iturri publikoak, higiene- zerbitzuak, paperon- tziak, markesinak, eserlekuak eta beste antzeko guztiak, bai aldi baterako jartzen direnak nahiz iraunkorrak."

Beraz, hiri-altzariak dira kanpoan jarritako behin-behineko edo behin betiko objektuak, urbanizazio-elementuei gainjarritakoak edo atxikitakoak. Are gehiago, 4.2 artikulua izenburua "Hiri-altzariak instalatzeko arauak" da eta 4.2.1 artikulua, berriz, "Arau Orokorrak", azterlan honen 5. eta 7. idatz-zatiak barne hartzen dituzte.

Hala, II. Eranskinaren 4.2.1.5 artikulua, hiri-ingurunearen irisgarritasunaren gaineko baldintza teknikoen ingurukoak, hiri-altzariei erreferentzia eginez, honakoa zehazten du:



“Hiri-altzariak oinezkoentzako ibilbidearen luzetarako noranzkoan lerrokatuta antolatuko dira. Espa- loien kasuan, kanpoko ertzean jarriko dira, inoiz ez fatxadaren ondoan eta, kasu guztietan, oinezkoentzako ibilbidearen zabalera librea 2,00 m-koa izango da gutxienez. Hektarea bakoitzeko 12 edo etxebizitza gutxia- goko dentsitatea duten urbanizazioetako espaloietan 1,50 m-koa izango da gutxienez.”

Gure ustez, 5. idatz-zati honek oinezkoentzako bideetan hiri-altzariak oro har nola jarri behar diren jorratzen du eta gainera zehazten du oinezkoentzako bidea espaloi batetik igarotzen denean nahitaez altzari horiek kanpoko ertzean jarri behar direla eta inoiz ez fatxadaren ondoan.

II. Eranskineko 4.2.1.7 epigrafeak, ordea, hauxe ezartzen du:

“Erabilera publikoko espazio libreetan edo oinezkoentzako ibilbideen ondoan instalatutako jarduera iraunkorrek edo aldi baterakoek (hala nola kioskoek, salmenta edo erakusketarako postuek, ostalaritzako terrazek edo antzekoek) ez dute inoiz oinezkoentzako ibil- bidea oztopatuko eta irisgarritasuna kontuan hartuta diseinatu beharko dira.”

II. Eranskineko 4.2.1 artikulua interpretazio sistematiko batean, 5. idatz-zatiak arautzen duena da oinezkoentzako ibilbideetan hiri-altzariak nola instalatu behar diren (ibilbide horien berariazkotasuna aipatuz espaloietatik igarotzen direnean); 7. artikulua, ordea, garatzen duena da espazio libreetan (parke, plaza, etab.) eta oinezkoentzako ibilbideen “ondoan” jarritako jardueretako hiri-altzarien kokapena - bi idatz-zatiek aipatzen dituzten hiri-altzariak izaera adierazgarria dute (terrazak, kioskoak, bankuak, etab.)-.

Laburbilduz, 7. idatz-zatiak dio altzari horiek ez dutela inoiz “oinezkoentzako ibilbidea” oztopatuko eta, hala, 5. idatz-zatiak espaloietan edozein motatako hiri-altzariak egoteagatik oinezkoen ibilbidea ez oztopatzeko modua xedatzen du. Erregulazio horrek babestu nahi duena da oinezkoen ibilbide irisgarriak libre egon daitezen eta irisgarritasuna zaildu edo oztopatuko duten objekturik eduki ez dezaten¹. Horregatik, ez dio axola oztopo horiek behin-behinekoak edo iraunkorrak, publikoak edo pribatuak diren.

Puntu honetan, azpimarratu behar dugu arlo honetako erregulazioak hiri-eremuen irisgarritasuna pertsona orori bermatu nahi diola, ez bakarrik mugikortasun arazoak dituzten pertsona guztiei, baita beste edozein motatako muga psikiko edo sensoriala dutenei ere². Ildo horretan, zaila da esatea irisgarritasuna ez dela oztopatzen, betiere, udalaren ustez lekurik egokienean bi metroko pasilloa errespetatzen bada.

¹ Oztopatu: gurutzatu, zerbait bidearen tartean sartu (Espainiako Errege Akademia)

² Irisgarritasuna sustatzeko abenduaren 4ko 20/2007 Legearen 1. artikulua.



Erakunde honen ustez araudi autonomikoaren interpretazioari buruzko arrazoiketa hori nahikoa izan beharko zatekeen aipatu arauak exijitzen duen oztoporik gabeko oinezkoen 2 metroko ibilbidea eraikuntzaren fatxadaren ondoan errespetatuz; urbanizatutako espazio publikoetara iristeko eta erabiltzeko irisgarritasunaren eta bereizkeriarik ezaren oinarritzko baldintzen agiri teknikoa garatzen duen otsailaren 1eko VIV/561/2010 Aginduak (BOE 61. zk., 2010eko martxoaren 11koa) interpretazio hori berresten du.

Ministerioko agindu hori konstituzioaren 149.1.1.a artikuluan jasotakoaren babesean eman da, estatuari ahalmen eskusiboa ematen dio Konstituzio-eskubideen gauzatzean eta betebeharren betetzean espainiar guztien berdintasuna bermatzeko oinarritzko baldintzak arautzean (azken xedapenetako lehengoa), hortaz, Euskal Autonomia Erkidegoan guztiz aplikagarria da.

Aginduaren 5.1 artikulua oinezkoentzako ibilbidearen baldintza orokorrak honako terminoetan definitzen ditu:

“Son itinerarios peatonales accesibles aquellos que garantizan el uso no discriminatorio y la circulación de forma autónoma y continua de todas las personas. Siempre que exista más de un itinerario posible entre dos puntos, y en la eventualidad de que todos no puedan ser accesibles, se habilitarán las medidas necesarias para que el recorrido del itinerario peatonal accesible no resulte en ningún caso discriminatorio, ni por su longitud, ni por transcurrir fuera de las áreas de mayor afluencia de personas.”

Halaber, aginduaren 5.2 artikulua, besteak beste, ezartzen du oinezkoentzako ibilbide irisgarriak baldintza hauek bete behar dituela:

“a) lurzorua mailan eraikitako muga fisikoki gauzatzen duen fatxadaren lerroaren edo elementu horizontalaren albotik edo aldamentetik igaroko da beti.”

Beraz, zenbait pertsona (adibidez, mugikortasun urria dutenak) ibilbidetik igaro badaitezke (adibidez, sigi-saga eginez, hizpide dugun kasuan neurri batean horrela litzateke, udalak aurkeztutako planoen arabera), ez du esan nahi diseinu hori ibilbide bat “irisgarria” dela esateko araudiak ezartzen dituen baldintzekin bat datorrenik. Alegia, ezarritako ibilbideak ez du pertsona guztien irisgarritasuna oztopatzen, pertsonok modu autonomoan espazio publikoak erabiltzeko eta horietaz gozatzeko duten eskubideari dagokionez.

Ondorioz, ibilbideak jarraian egon behar dira eta ahal den ibilbiderik laburrenean. Gauzak horrela, arauak ezartzen du baldintza horiek espaloietan ondoen betetzen dituen ibilbidea dela fatxadaren lerroaren alboko espazioa libre uzten duena; hori guztia ahaztu gabe trazadurak bere osotasunean beharrezko koherentzia eta jarraitutasuna eduki behar dituela oinezkoentzako pasabide eta igarolekuekin, etab.





4. Ordenantzaren 4.5 artikulua dio instalazioak gutxieneko oinezkoentzako bide bat iraunkorki bermatu beharko duela, eta ez duela oztoporik izan behar bi (2) metrotan, *aurrealdearen ondoan edo instalazioaren mugatik zintarriraino edo ataripearen amaieraraino, udal irizpideen arabera.*

Oinezkoen ibilbide irisgarriek eduki behar dituzten baldintzei jarraiki, aurreko kontuan hartuzkoan adierazi dugunaren arabera, bi (2) metroko edozein oztopotik libre egon beharko den gutxieneko oinezkoen igarobidea nahitaez fatxadaren ondoan bermatu beharko da eta eskubidearen kontrakoa izango da eta udalak ezingo du beste irizpiderik ezarri.

Ondorioz, udalak udal ordenantzaren testua aldatu behar du eta, edozelan ere, aldaketa hori onartzen ez duen bitartean, legezkontasunarekin bat datorren irizpidea aplikatu, hau da, espaloietako oinezkoen igarobidea eraikinen fatxadaren ondoan bermatuko dela. Ildo horretan, udalak emandako baimen espedienteak aztertu behar ditu –horietan ez dira legez ezarritako baldintzak errespetatu, pertsona guztiei oinezkoen ibilbide irisgarriak bermatzeari dagokionez-.

5. Azkenik, uste dugu egokia dela jabari publikoa terrazekin okupatzearen inguruko izaera juridikoaren eta jokoan dauden interesak batzearen gaineko azken hausnarketa egitea; hala, udalari, jabari publikoaren kudeatzailea denez, dagokio interes orokorrari erantzuna ematea, auzotar guztiak babestuz.

Udaletako kale eta plazak jabari publikotzat jotzen dira eta haien komuneko xede nagusia herritar guztiek modu berean, bereizketarik gabe, erabil ditzaten da. Hala, batzuen erabilerak ez du gainontzeko interesdunena galarazten. Izaera juridiko hori kontuan hartu behar da baimenak arautzerakoan eta okupatzeko ezarrita dauden baldintzak bete daitezen eskatzerakoan, interes orokorra partikularren interesen aurrean indargabetu ez dadin; alegia, ohikoa bada ere hiri-pasaia honetan terrazak jartzea, ez da traba izan behar espazio publikoen irabazizko aprobetxamendurako baimen diskrezionalen aurrean gaudela egiaztatzeko.

Ordenantzaren 2. artikulua xedatzen duen moduan, bide publikoaren okupazioek eta aprobetxamenduek komuneko erabilera bereziaren kategoria juridikoa dute eta baliatu ahal izateko udalaren aurretiko lizentzia behar dute, prekarioan eman zela ulertzen dena, eta ezeztagarria da interes publikoari lotutako arrazoiengatik eta ez du kalte-ordainetarako eskubiderik.

Horrez gain, baimen horiek alboko auzotarrei kalte garrantzitsua eragiten diete. Horregatik, udal administrazioak kaleko jarduera horiek jakina denez sortzen dituzten eragozpenak gutxitzen dituzten neurriak hartu behar ditu. Ildo horretan, udalak, gutxienez, modu eraginkor eta efizientean jardun behar du espazio publikoa hartu edo okupatzeko ezarrita dauden baldintzen betetze arduratsua eskatzerakoan eta, hala, ikuskapen- eta kontrol-neurri egokiak arbitratu behar ditu, arau-haustea jazoz gero kasuan kasuko zigortzeko espedientearen izapidea barne hartuta.





Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera, gomendio hau egiten diogu Abadiñoako Udalari:

GOMENDIOA

1. Hiri-inguruneetako irisgarritasunaren legezko araudiarekin bat etorriz, espaloietan terrazak jartzeko baimenei dagokienean, bi (2) metroko oinezkoen igarobideak ez du oztoporik izan behar eta eraikinen fatxadaren ondoan daudela bermatu behar da.
2. Emandako baimen espedienteak -oinzkoen ibilbideetako irisgarritasuna bermatzeko legezko baldintzak errespetatu dituzten horiek, hain zuen- berriki ditzan.

Erabilera publikoko guneetan terrazak eta barrak jartzea arautzen duen udal ordenantzaren 4.5 artikulua alda dezan eta aplikatu beharreko legezko araudira egoki dezan.

